

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

1. zenbakia

Data 2002-01-03

1 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK
Abenduaren 14ko 1280/2001 Foru Agindua, 341 eredua onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Abenduaren 14ko 1.280/2001 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian konpentsazioen ordainketa eskatzeko erabiliko den 341 eredua onartzen duena.

Azaroaren 28ko 91/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia nekazaritza sektoreari laguntzeko presako zerga neurriei dagokienez urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege-Dekretura egokitzen duenak, aldaketak sartu zituen 102/1992 Foru Dekretuaren 130. artikuluko Bost apartatuan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian dauden enpresariak jasotzen duten oroharreko konpentsazioa igoaraziz.

Ordura arte konpentsazio hori ustialekuetan lortutako produktuen salmenta prezioaren 100eko 5koa baldin bazen, dekretu berriarekin nekazaritza eta baso ustialekuek datozen produktu eta zerbitzuen konpentsazioa 100eko 8koa da, eta abeltzaintza eta arrantza ustialekuekako produktu eta zerbitzuen kasuan, berriz, 100eko 7koa.

Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 131.1 artikuluan xedatzen duenez, Foru Dekretu honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioak ordaintzea Herri Ogasunari dagokio bi kasu hauek gertatzen badira: Ondasun salmentak esportatzea edo Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatzea, eta erregimen berezian dauden zerbitzuak Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden hartzaileei egitea.

Araudia aldatu izanak ezinbestekoa egiten du eredu berri bat onartzea nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian egin beharreko konpentsazioen ordainketa eskatzeko. Eredu hori, gainera, apirilaren 18ko 86/1986 Foru Aginduaren bidez onartutakoaren ordezkari erabiliko da.

Horiek horrela, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. 341 eredua onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da 341 eredua, «Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian konpentsazioak ordaintzeko eskaera» deiturikoa. Eredua foru agindu honetako I. Eranskinean ageri da, eta bi ale ditu: Administrazioaren alea eta subjektu pasiboaren alea.

2. artikulua. 341 eredua aurkeztera behartuak.

341 eredua nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian dauden subjektu pasiboek aurkeztuko dute, beti ere esportatzen diren edo Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatzen diren ondasun salmentak egin badituzte edota Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden hartzaileei erregimen berezian sartzen diren zerbitzuak eskaini badizkiete.

3. artikulua. Aurkezteko epea.

Aitorpena hiruhileko natural bakoitza amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da. Urteko azken hiruhileko naturalari dagokion aitorpena hurrengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztuko da.

4. artikulua. Aurkezteko tokia.

341 eredua zerga bulegoetan aurkeztuko da edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalean.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau 2002ko urtarilaren 1ean sartuko da indarrean.

Donostia, 2001eko abenduaren 14a.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(13172) (13719)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasoia



6400030512002

BALIO ERANTSIAREN GAIKEKO ZERGA IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

KONPENTSASIOAK NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA
ARRANTZAREN ERREGIMEN BEREZIAN
COMPENSACIONES EN EL RÉGIMEN ESPECIAL
DE LA AGRICULTURA, GANADERÍA Y PESCA

341

EKITALDIA:
EJERCICIO:

EPEALDIA:
PERIODO:

AUTORTZAILEA DECLARANTE	IFZ/NIF	Deiturak eta izena/Apellidos y nombre					Anagrama
	Zerga helbidea/Domicilio fiscal	Zk/Núm	Letra	Esk/Bac	Oina/Piso	Aldea/Mano	Telefonoa/Teléfono
	Udalerrria/Municipio	Posta kodea/Cod.Postal		Gakoa/Clave	Probintzia/Provincia		Gakoa/Clave

KONPENTSASIOA COMPENSACIÓN	Eragiketen zenbatekoa (102/92 FDaren 131.1 art.) Importe de las operaciones (Art 131.1º DF 102/92)		Konpentsazioaren pontzentajea Porcentaje de compensación		Konpentsazioaren zenbatekoa Importe de la compensación	
	01		04		07	
	02		05		08	
	03		06		09	
	Zenbatekoa, guztira / Importe total (07+08+09)				10	

ADMINISTRAZIOAK BETETZEKO TARTEA ESPACIO RESERVADO PARA LA ADMINISTRACIÓN

SUJETO PASIBOA SUJETO PASIVO	Foru Hazienda horri eskatzen diot aipatu konpentsazioaren zenbatekoa behean adierazitako kontuan banku transferentzia eginez ordain dakidala. Manifiesto a esa Hacienda Foral que el importe de la compensación reseñada, me sea abonado mediante transferencia bancaria a la cuenta abajo indicada de la que soy titular.		Data Fecha	
	BANKU BANCO	BULEGO OFICINA	K.D. D.C.	Sinadura/Firma
	KONTU ZK. Nº CUENTA			
	ZENBATEKOA IMPORTE			

Administrazioaren alen / Ejemplar para la administración

JARRAIBIDEAK

Eredu hau nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian dauden subjektu pasiboak aurkeztuko dute, beti ere esportatzen diren edo Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatzen diren ondasun salmentak egin badituzte edota Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden hartzaileei erregimen berezian sartzen diren zerbitzuak eskaini badizkiete, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergarenak, 131.1 artikuluan xedatutakouri jarraiki.

Ekitaldia: konpentsazioa eskatzen den hiru hilekoaren urteko azken bi zifrak jarriko dira.

Epealdia: ondoko taularen arabera.

1H = 1. hiru hilekoa

2H = 2. hiru hilekoa

3H = 3. hiru hilekoa

4H = 4. hiru hilekoa

KONPENTSAZIOA

01 - 02 laukiak. Adierazi hemen zein izan den, epealdiaren barruan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian egonik, esportatuak izateko edo Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatzeko egin diren ondasun salmenten zenbateko osoa, edota Zergaren lurraldetik kanpo hartzaileei erregimen berezia aplikaturik egin zaizkien zerbitzuengatik lortutakoa, BEZri buruzko foru dekretuaren 131.1 artikuluan aipatu bezala. Zenbateko hori foru dekretu horren bost apartatuan ezarritako konpentsazio portzentaje bakoitzari dagokion izango da.

04 - 06 laukiak. BEZren foru dekretuak 130. artikuluan bost apartatuan ezartzen dituen konpentsazio portzentajeak adieraziko dira.

07 - 09 laukiak. Konpentsazioaren zenbatekoa jarri behar da hemen, hau da, **01 - 03 laukietan** adierazitako balioari **04 - 06 laukietan** jarritako konpentsazio portzentajea aplikatuz ateratzen dena.

SUBJEKTU PASIBOA

Inprimakia subjektu pasiboak sinatu behar du.

Kompentsazioa non jaso nahi den adierazi behar da, kontu zenbakia, Banku edo Aurrezki Kutxa eta Bulegoa jarri. Haren zenbatekoa ere idatziko da.

Transferentzia egiteko adierazi den kontua subjektu pasiboaren izenean irekita dagoela frogatzeko, bankuaren ziurtagiria erantsiko zaio inprimakiari.

AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Aitorpena hiru hileko natural bakoitza amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da. Urteko azken hiru hileko naturalari dagokion aitorpena hurrengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztuko da.

341 ereduaz zerga bulegoetan aurkeztuko da edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalean.

INSTRUCCIONES

Presentarán este modelo los sujetos pasivos que, acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, hayan realizado entregas de bienes que sean objeto de exportación o de expedición o transporte a otro Estado miembro y por los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación de Impuesto, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 131.1º del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Ejercicio: deberá consignar las dos últimas cifras del año al que corresponda el período trimestral por el que solicita la compensación.

Período: según la tabla siguiente.

1T = 1º trimestre

2T = 2º trimestre

3T = 3º trimestre

4T = 4º trimestre

COMPENSACIÓN

Casillas 01 - 03 Se consignará el importe total, en el período, de las entregas de bienes que sean objeto de expedición o transporte a otro Estado miembro realizadas en el ámbito del régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca y de los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación del Impuesto a que se refiere el artículo 131.1º del Decreto Foral del IVA, correspondiente a cada porcentaje de compensación fijado en el apartado cinco del artículo 130 del citado Decreto Foral.

Casillas 04 - 06 Se consignarán los porcentajes de compensación establecidos en el apartado cinco del artículo 130 del Decreto Foral del IVA.

Casillas 07 - 09 Se hará constar el importe de la compensación, resultado de aplicar al valor reseñado en las **casillas 01 - 03**, el porcentaje de compensación fijado en las **casillas 04 - 06**.

SUJETO PASIVO

El impreso deberá ir firmado por el sujeto pasivo.

Se hará constar el número de la cuenta, Banco o Caja y Oficina donde desee que le sea abonada la compensación, así como el importe de esta. El impreso deberá ir acompañado de una certificación bancaria que acredite que la cuenta consignada para la transferencia está abierta a nombre del sujeto pasivo.

PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

La presentación de esta declaración se efectuará en los veinticinco primeros días naturales posteriores a cada trimestre natural. La correspondiente al último trimestre natural del año deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero del año siguiente.

El modelo 341 deberá ser presentado en las Oficinas Tributarias, o en la Sección del Impuesto sobre el Valor Añadido del Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.